



EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA

2016/2017 Ikasturtea

Esteribarko Udalak, Euskara Zerbitzuaren bidez, ibarreko biztanleak diruz lagunduko ditu, beti ere, jarraiturik honako:

ARAUAK

1. XEDEA

1.1. Deialdi honek arautzen dituen beken xedea da euskara ikasteak sortzen duen gastua hein batean finantzatzea. Diru-laguntzak 2017. urteko aurrekontuko 451 48203 diru-sailaren kontura ordainduko dira. Xede honetarako, gehienez ere, 2.000 euro erabiliko dira.

2. BALDINTZAK

2.1. Eskatzaileranak

Honako baldintza hauek betetzen dituzten biztanleek eskatu ahalko dute euskara ikasteko diru laguntza:

- a) 16 urtetik gorakoa izatea
- b) Ibarreko erroldan inskribatuta egotea.

2.2. Ikastaroarenak

Diruz lagunduko dira euskara ikastea helburua duten ikastaro mota guztiak: estentsiboak, trinkoak, barnetegiak eta autoikaskuntzakoak. Beti ere 2016/2017 ikasturteari dagozkion gastuak.

Eskatzaileek bi deialditan bakarrik jaso ahalko dute beka maila bereko ikastaro batengatik. Hau da, aurretik lagundutako maila bigarrenez lagunduko da; beti ere, eskatutako gutxieneko asistentzia egiaztatzen bada:

Eskola ordu guztien % 80

3. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA.

Beka eskabideak Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira (Orreaga etorb. 13, Zubiri) 2017ko uztailaren 3tik irailaren 29ra.

Epea luzaezina izanen da. Epe horretatik kanpo ez da eskaerarik onartuko.

4. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

- Alkateari zuzendutako instantzia
- Ikastaroa antolatzen duen erakundeak izenpeturiko dokumentua, non hari buruzko baldintzak azaldu behar diren: maila, ordu kopurua, kostua eta asistentzia portzentajea.
- Matrikularen ordainagiria.

- Asistentzia ziurtagiria, asistentziaren portzentajea zehazten duena
- Diru-laguntza jaso nahi den kontu zenbakia
Eskatutako agiri guztiak jatorrizkoak izanen dira, edo bestela Udalak konpultsatuak.

5. DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA

Diru-laguntza ordaindutako matrikularen % 60 izanen da.

Edonola ere, deialdi bakoitzean ikasleak ez du 400 euro baino gehiago jasoko.

Beken eskaera urte batekoa izanen da, eta ematea baldintzatuta eskatu duen ariketa ekonomikoan Udalak duen aurrekontuari.

6. EBAZPENAK ETA ORDAINKETAK.

6.1. Eskatzaileak diru-laguntzaren %100 jasoko du Euskara Zerbitzuak aldeko txostena egin eta Alkateak ebazpena eman eta gero.

6.2. Esteribarko Udalaren datuetan beka jaso behar duen pertsonaren izenean ez ordaintzeren bat agertzen bada, zorraren zenbatekoa bekatik kenduko da.

6.3. Ebazpenaren kontra, bide administratiboa itxiko duena, errekurtsu hauetakoren bat jarri ahalko da aukeran:

Administrazioarekiko Auzi errekurtsua, Nafarroako Administrazioarekiko Auzien eskumeneko organo eskudunari zuzendua, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik bi hilabeteko epean.

Gora jotzeko errekurtsua, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, ebazpena jakinarazi eta ondoko hilabetean.

Berraztertzeko errekurtsua, egintza ebatzi duen organoari zuzendua, erabakia jakinarazi eta hilabeteko epean.

7. ESKATZAILEAREN BETEBEHARRAK.

7.1. Diruz laguntzen diren ikastaroetan suerta daitezkeen aldaketa esanguratsuak Udalari jakinarazi behar dira.

7.2. Diruz laguntzen diren ikastaroengatik eskatzaileek beste erakunde baten diru-laguntza jasotzen badute, berehala adierazi beharko diote Esteribarko Udalari.

Esteribar, 2017ko maiatzaren 30

Alkatea/ El Alcalde

Mikel Gastesi Zabaleta

